

SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

**XVI Sagar Uzta 2016.
Prentsa Dossierra.**

Kontaktua:

Leire Alkorta (Prentsa arduraduna)
943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.eus

www.sagardoarenlurraldea.eus

XVI. Sagar Uzta, sagarraren festa Astigarragan

Sagar Uztak hamaseigarren edizioa beteko du aurten eta urtero bezala, dolaretako lanen hasiera ospatuko du, azarora bitartean luzatuko den jarduera.



XVI. Sagar Uzta 2016 jaiares jarduera nagusiak irailaren **22, 24 eta 25ean** ospatuko dira jende guztiarentzako prestaturiko eta sagarraren eta sagardoaren kulturaren oinarrituriko jarduerekin.

Aipamen berezia merezi dute Sagar Uzta jaian parte-hartuko duten Astigarraga eta inguruko talde eta sektore ezbedinek: Sagardoaren Lurraldeako bazkideak, tabernak, jatetxeak, bertako baserriak, enpresak, talde kulturalak, profesionalak, babesleak, bolondresak, etab...

Jarraian **XVI. Sagar Uzta 2016** jaiares jarduera nagusiak zehazten ditugu:

Festan ez galtzekoak:

1. **Sagarra, protagonista. Sagarraren azokan** buelta bat eman eta sagarren erakusketa, herriko baserriarren produktuen salmenta eta saski, txertaketa, etab.-en erakustaldiak ikusi.
2. **Ez dadila sagardorik falta!** Edalontzi bat erosi eta 12 sagardogileren **sagardoa dastatu**.
3. **Lehen muztioaren elaborazioa. Sagar dantza, kirikoketa, sagar biltzea, jotzea, zanpatzea eta txalaparta** ikusi eta 2016ko uztako lehen muztioarekin **topa** egin.
4. **700 kizki lagun baietz! Kizki Egunean** parte-hartu sagarrak kizkiarekin jasoaz.
5. **Herrien arteko desafioa:** Astigarraga, Oiartzun, Goizueta, Hernani, Donostia, Usurbil eta Orereta herrien arteko "sagargintzaz" desafioaz gozatu.

Azpimarratzekoak:

1. **TOPA!:** 2016 uztako lehen muztioaren elaborazio prozesua amaitu ostean, bertaratu guztien artean **argazkia** aterako dugu muztio berriarekin topa eginez. Hitzordua 13:00etan izango da, Foru Plazan.
2. **Kizki Eguna:** Ekitaldiak zortzigarren edizioa beteko du aurten eta marka berria lortu nahi du **700 pertsona** aldi berean kizkiarekin sagarrak bilduz. 700 kizki lagun baietz!
3. **Familia guztiarentzako:** Familiek jarduera ezberdinak izango dituzte sagarra eta sagardoaren kulturaz gozatzeko: "**Sagar motak ezagutuz**" mendi-buelta familian eta **sagar tarta tailerrak**.
4. **Beste herrien parte-hartzea:** Aurten Oiartzun, Goizueta, Hernani, Donostia, Usurbil eta Orereta festara batuko dira eta **Marmitako Lehiaketan** eta "**sagargintzaz**" herrien arteko desafioan parte hartuko dute.

Informazio gehiagorako: www.sagardoarenlurraldea.eus

Egitaraua

Aurreikusitako egitaraua honakoa da:



Osteguna, irailak 22

19:00-21:00 PINTXO-POTEA Astigarragako tabernetan. Sagarren eratorriekin egindako pintxoak emango dira.

Larunbata, irailak 24

09:30 "SAGAR MOTAK EZAGUTUZ", Santiagomendiko Sagardo Bidean zeharko mendi-buelta familiar*.

10:00 III. SAGARDOBIDE ERRONKA, Santiagomendin zeharko errelebo proba.

Igandea, irailak 25

SAGARRAREN JAIA Foru enparantzan.

09:30 Musika Eskolako txistu ikasleen eta Txirriskla Txistulari Taldearen diana.

10:30-12:00 IX. Sagar Uzta Argazki Rally Digitalean izen-emateak plazan*.

11:00-14:00 Museo Enogastronomikoen Sarearen tailer gastronomikoak*.

11:00-13:30 Haurrentzako tailerrak eta jolasak.

11:00-13:30 Herrien arteko Marmitako Lehiaketa.

11:00-14:00 Sagarraren azoka:

- Sagarren erakusketa, dastaketa eta salmenta.
- Sagardo dastaketa.
- Saski, txertaketa, etab-en erakustaldiak.
- Herriko baserritarren produktuen salmenta.
- Trikitilariak eta abeslariak herrian zehar.

11:00 2016 uztako lehen muztioaren elaborazioa. Sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea.

12:30 Sagar dantza eta kirikoketa.

13:00 Txalaparta eta urteko lehen muztioaren dastaketa.

13:00 Kizki Eguna. 700 kizki lagun baietz!*

14:30 Herri bazkaria frontoian.

17:30 Herrien arteko sagargintzaz desafioa.

* Izen-emateak: 943 550 575 / info@sagardoarenlurraldea.eus

Informazio gehiagorako: www.sagardoarenlurraldea.eus

Sagarraren heldutasuna atzeratu egin da iazko urtearekin alderatuta

Aurreko urteetan bezala, Fruitel eta Sagardoaren Lurraldearen 2016 uztako XVI. sagardo sagarraren heldutasunaren txostena aurkezten dugu. Txostenaren puntu nagusiak hauek dira:

- Aurreko urtearekin alderatuta, sagarraren heldutasuna atzeratua dator eta iraila bukaera eta urriaren hasieran lortuko du heldutasun puntua.
- Sagar barietate eta sagastien artean ezberdintasun nabarmenak daude. Aurtengo uda bero eta lehorrekin, lursailaren kokapen geografikoak, orientazioak eta lurraren mota eta sakonerak eragin handia izan dute sagarren heldutasunean.



Azken urteetan bezala, iraila hasieran Gipuzkoako sagasti ezberdinetan kontrol bat egin da sagarren heldutasunaren egoera ezagutu ahal izateko.

Horretarako, Gipuzkoako zenbait sagasti jarraitu dira eta 14 barietate kontrolatu dira, besteak beste: Aritza, Errezila, Gezamina, Goikoetxe, Manttoni, Moko, Mozolua, Patzolua, Txalaka, Udare Marroi, Urdin, Urtebi Haundi, Urtebi Txiki eta Verde Agria.

Orokorrean, **2016ko iraileko lehenengo hamabostaldian**, sagastietan azaldu diren zenbait **puntu** berezi ditzakegu:

- **Barietate eta sagastien artean ezberdintasun nabarmenak** daude. Aurtengo uda bero eta lehorrekin, lursailaren kokapen geografikoak, orientazioak eta lurraren mota eta sakonerak eragin handia dute sagarren heldutasunean.
- Aurreko urtearekin alderatuta **heldutasuna zeozer atzeratua** dator.
- Azukre maila begiratuta, aurtengo urteak, batzaz beste **11,7 °Brix** ditu, aurreko urtekoa baino 0,5 gradu gehiago.
- **Almidoiaren erregresioa 2,4-ko indizean** dago, hau da, azken urteetako baxuenetakoa da.
- Heldutasun datuak ikusita (almidoiaren erregresioaren arabera) eta Goikoetxe barietatea kenduta, **3 barietate talde** ikus daitezke:
 - Aurreratuenak: Mozolua, Patzolua, Gezamina eta Aritza.
 - Erdikoak: Urtebi Txiki, Txalaka, Urdin eta Verde Agria.
 - Atzeratuenak: Errezila, Udare Marroi, Moko, Urtebi Haundi eta Manttoni..

Aitor Etxeandia Azpiazu – Sagarlan S.L.
Fruitugintzan aholkularia

TOPA!

2016 uztako lehen muztioaren elaborazio lanak bukatu ostean, sagardogile, talde kultural eta festara bertaratuen artean taldeko argazkia ateratuko dugu muztio berriarekin topa eginez. Hitzordua irailaren 25ean izango da, 13:00etan, Udaletxe aurrean.

Sagar Uzta sagarraren inguruko festa da eta uztako lehen muztioaren elaborazioak bisitari asko erakartzen ditu sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea era tradizionalan ikusteko.

Aurten, behin lan hauek amaituta, sagardogileak, talde kulturalak eta festara gerturatutakoak dolarera gerturatu eta taldeko argazkia aterako dugu **egindako muztioarekin topa egiteko**.

VIII. Kizki Eguna. 700 kizki-lagun baietz!



Irailaren 25ean 13:00etatik aurrera ospatuko den Kizki Egunak, zortzigarren edizioa beteko du aurten eta 700 pertsona (kizki-lagun) batu nahi ditu sagarrak kizkiarekin bilduz.

Goldea Elkarteak sortuta, aurten Astigarragan bertan hasitako bideari amaiera eman nahi zaio eta helburu horrekin batuko dituzte indarrak Kizki egunak antolatu izan dituzten zazpi udalerriek. **700 kizki-lagun biltzea izango da erronka, aldi berean kizkiarekin sagarra bilduko duten 700 lagun elkartzea.**

Izen-emateak www.sagardoarenlurraldea.eus webgunean.

III. Sagardobide Erronka Astigarragan.

Irailaren 24an, larunbata, 10:00etatik aurrera "III. Sagardobide Erronka" ospatuko da, Santiagomendin zeharko errelebo proba.

Aurten 10 taldek parte-hartuko dute proban: **Alorrenea** sagardotegia, **Gurutzea** sagardotegia, **Ipintza** sagardotegia, **Kaxkarre** landetxea, **Lizeaga** sagardotegia, **Petritegi** sagardotegia, **Rezola** sagardotegia, **Txopinondo** sagardotegia, **Zapiain** sagardotegia eta **Zelaia** sagardotegia.

Talde bakoitza 2 neska eta 2 mutilez osatua egongo da eta erreleboen ordena honakoa izango da: 1. itzulua mutilak bizikletan, 2. itzulua neskak korrika, 3. itzulua neskak bizikletan eta 4. itzulua: mutilak korrika helmugara iritsiera.



Familia guztiarentzako jarduerak.

Familiak jarduera ezberdinak izango dituzte etxeko txikienekin sagarraren kulturaz gozatzeko: Santiagomendiko Sagardo Bidean zeharko "Sagar motak ezagutuz" mendi-buelta familian eta sagar tarta tailerrak.

Irailaren 24an, larunbata, **"Sagar motak ezagutuz"** jarduera ospatuko da 09:30etan. Josu Osarekin batera, familiak Santiagomendiko Sagardo Bidean zehar ibiliko dira Santiagomendi inguruko sagastietan dauden sagar barietateak ezagutu eta dastatzeko.

Irailaren 25ean, igandea, Euskadiko Museo Enogastronomikoen Sareak **sagar tarta tailerrak eskainiko ditu** Rafael Gorrotxategi (Gorrotxategi Konfiteri Museoa) gozogilearen eskutik. Tailerrak 11:30, 12:00 eta 12:30etan izango dira.



Jarduera hauetan parte-hartu ahal izateko, aurrez izena ematea beharkoa da. **Izen-emateak:** 943 550 575 / info@sagardoarenlurraldea.eus

Beste herrien parte-hartzea festan.

Aurten Oiartzun, Goizueta, Hernani, Donostia, Usurbil eta Orereta herriak XVI. Sagar Uzta 2016 jaira batuko dira eta Marmitako Lehiaketan eta "sagargintzaz" herrien arteko desafioan parte hartuko dute.

Irailaren 25ean, Astigarragak Oiartzun, Goizueta, Hernani, Donostia, Usurbil eta Orereta herrien parte-hartzea izango du festan eta egun horretarako antolaturiko ekintza hauetan lehiatuko dira: batetik, 11:00etatik aurrera ospatuko den **Marmitako Lehiaketan** sukaldaritza dohainak erakutsi beharko dituzte, eta bestetik, 17:30etatik aurrera ospatuko den **"Sagargintzaz" herrien arteko desafioan** beren abilezia erakutsi beharko dute.

Informazio gehiagorako:

Leire Alkorta (Prensa arduraduna)
943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.eus

Antolatzailea: Sagardoaren Lurraldea

Administrazioa:



Sagardotegiak:



Talde kulturalak:



Babesleak:



Kolaboratzaileak:

Erbitegi Etxeberri Kirikoketa Taldea; Txirriskla Txistulari taldea; Astigarragako tabernak; Marisol Yaben; Pastain Argazkiak; Josu Osa; Euskadiko Museo Enogastronomikoak; Astigarragako Baratz Elkarteak; eta bolondres lana egiten duten guztiak.